

INGURUMENA ZAITZEN

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

2020-2021 IKASTURTEA

Urtero bezala, iritsi zaigu ikasturtean zehar egindako lanak bildu eta herrian aurkezteko garaia. Aurtengoa ere nahikoa bitxia izan bada ere, kanpoan ibiltzeaz gozatzeko aprobetxatu dugu. Eta egindako irteerei esker, Zaldibiako altxor ugari ezagutu ditugu. Gainera, aurtengo eskualdeko Eskolako Agenda 2030 gaia oso aproposa izan da: Basoak, hain zuzen ere! Eta horiekin bat egin dugu.

Eskolako Agenda 21 izatetik Eskolako Agenda 2030 izatera pasa da eta hemendik aurrera, mundu mailan ezarri diren Garapen Jasangarrirako Helburuak ezagutzen arituko gara. Lehenengo honetan, 15. GJHa landu dugu: Lehorreko ekosistemak. Eta honen barruan kokatu da jorratu dugun gai zehatza, basoena.

Horretaz gain, jarraitzen dugu gure ingurua zaintzeko eta txukun mantentzeko konpromisoarekin. Ez ditugu ahaztuta utzi urtero burutzen ditugun beste hainbat ekintza: parke botanikoa, baratzea, kanpo espazioaren eraldaketa... Beste bi proiektu berrieekin ere hasi gara: Baso eskola eta urmaela.



Parke botanikoa


Aurreko bi ikasturtetan bezala, aurten ere haur hezkuntzako taldeak, ateri egonez gero, Olalde parkera ateratzen gara, egunero, goizeko 11etatik 12:30etara. Eskola ondoan dagoelako zorte handia dugu. Bertan, naturak eskaintzen dizkigun baliabideak aprobetxatuz, esploratuz, ikertuz, jolastuz, sormena martxan jarriz, gauza asko ikasten ditugu. Gure gurasoek ere parte hartu dute, auzolanean, parkeko malda garbitzen.

Urtarrilean HH 4koek egindako bilera baten ondoren, gure eremua zaintzea erabaki genuen. Zorua hondatuta eta belarrik gabe zegoen, beraz, belar berria hazteko, haziak bota eta denbora luze batean parkeko beste eremu batean ibili gara, HH 5eko lagunek utzitakoa. Gustura ibili gara bertan!



Baratzea

Aurtengo ikasturtean 2. eta 3. mailako ikasleak arduratu gara baratze lanaz. Txandakatuz, talde txikitan astean behin atera gara baratzerara. Martxan jartzeko garaian, gurasoen laguntza ere izan genuen. Apirilean berriz, zimaurrea zabaltze lanetan aritu ginen, lurrarekin nahastuz. Eta kalabaza haziak landatu genituen.



Kanpo espazioaren eraldaketa

Orain dela bi ikasturte, kanpoko espazioaren eraldaketarako batzordea sortu genuen ikasle, irakasle, guraso eta udal ordezkarien artean. Bere sorreratik proposatutako proiektuari forma eman eta lanak bukatzen aritu gara. Denbora pixka bat kosta bada ere, azkenean haurreskola inguruan hondartegia lortu dugu!

Maiatzaren 28an, lehenengo mailako ikasleek estreinatu zuten. Eta ondoren, gainontzeko taldeek erabiltzeko aukera izan zuten.



Baso eskola

Baso eskola, aurten hasi dugun proiektu berrietako bat da. Honen bidez ikasteko modua aldatu zaigu eta egun batzuetan, eskola barruko gelan egon ordez, natura gure ikasgela bihurtu zaigu.

Lehenengo lana, leku egokiak topatzea izan da. Parke botanikoa eskola ondoan dagoenez, oso aproposa dugu horretarako. Eta gurasoen, udal ordezkarien eta Zaldibiako hainbat herritarren laguntzarekin 3 baso topatu genituen: Muiteiko basoa, Etxaisko basoa eta Arreko Haiztie. Baso horietako jabeek baimena eman ziguten haien basoetan eskolako orduetan erabiltzeko. Beraz, otsailtik aurrera LH 1, LH 2 eta LH 3 astean goiz batez basora joaten hasi ginen.

la konturatu gabe ere, jolasen bidez, ingurumena, matematika, komunikazioa edota larrialdi klimatikoa bezalako gaiak ikertu eta asko ikasten dugu.



Urmaela

Aurten, gure eskola Euskal Herriko Eskoletako Urmael Sarean sartu da. Honi esker, Olalde parkeko putzuaren bizi berritza lortu dugu. Horretarako, Aranzadiko kideek laguntza izan dugu.

Urmael egoki bat lortzeko, putzuaren hustuketa lanak egin genituen. 5. eta 6. mailako ikasleak hustuketan laguntzen aritu ginen, arraiak, uhandrean eta larbak hartu eta kuboetan sartzen.

HH5etik hasi eta LH6 arte, ikasleok Ion Garin eta Iñaki Mezkitarekin saio bana izan genuen. Ionekin urmaelaren inguruko azalpenak eman zizkigun eta Iñakik, burduntzien eta sorgin-orratzen inguruan hitz egin zigun.

Ondoren, 5. eta 6. mailakoek jarduera ezberdinak egin genituen. Aranzadiko kide den Iñaki Sanzekin animalia ezberdinak aztertu eta gelara eramandako uhandreak askatu genituen. Gainera, egindako jarduera grabatu egin genuen Eskoletako Urmaelen Sarerako. Beste eskolek ere ikus dezaten Lardizabalen egiten duguna. Asko ikasteaz gain, primeran pasatu genuen!

Urmaelean egindako ekintzen artean Urmaelaren Musika izena duena azalduko dizuegu. Taldetan banatuta, ondorengo lanak egin dugu:

HH5

- Inolako argibiderik gabe, urmaela marraztu.
- Beste egun batean, urmaelean bildu. Begiak itxi eta bertan entzuten diren soinuek erreparatu. Buruan gorde eta putzuaren bigarren marrazkia egin.
- Berrito urmaelera hurbildu eta bertako animaliak eta landareak behatu, azken marrazkia eginez.

LH 1-2

- Urmaelaren ingurura joan eta, isiltasuna mantenduz, inguruko soinuak adi-adi entzun.
- Entzundako soinu horiek paperean jaso, marrazki bat eginez.
- Marrazkiekin eta urmaelaren soinuekin bideo bat sortu.

LH 3-4

- Aurretik, urmaelean entzun daitezkeen soinuek hitz egin.
- Urmaelaren ingurura joan eta, isiltasuna mantenduz, inguruko soinuak adi-adi entzun.
- Entzundako soinu horiek paperean jaso, marrazki bat eginez.
- Ondoren, entzundakoa eta marrazkietan jasotakoa elkarbanatuz, hitz egin.
- Amaieran, marrazkiekin eta urmaelaren soinuekin bideo bat sortu.

LH 5-6

- Aurretik, urmaelean entzun daitezkeen soinuek idatzi. Lehenengo bakarka eta gero talde txikian.
- Urmaelaren ingurura joan eta, isiltasuna mantenduz, inguruko soinuak adi-adi entzun.
- Entzundako soinu horiek paperean jaso, idatziz eta marrazki bat eginez.
- Ondoren, entzundakoa, idatzitakoa eta marrazkietan jasotakoa elkarbanatuz, hitz egin. Guztien artean azken zerrenda osatu: zer entzun dugu?
- Amaieran, marrazkiekin eta urmaelaren soinuekin bideo bat sortu.



15. GJHa - Lehorreko ekosistema biziak: Basoa

Goierriko Eskolako Agenda 2030an landutako gaiarekin bat eginez, gure eskolako talde guztiek ere basoen inguruko lanketa burutu dugu. Horretarako, Artelatzeke kideek eskainitako lan-fitxa eta unitate didaktikoak erabili ditugu.


Muitteko basoan jolastuz, bere baimenarekin, basoa ezagutu, zaindu eta gozatu dugu.



Gako dikotomikoaren laguntzaz, zuhaitzak identifikatu ditugu. Horretarako, hostoen ezaugarriak behatu ditugu.



Ateratako ondorioen inguruan hitz egin dugu eta basoa zaintzeko aholkuak adostu.



Nor da nor? Galderak eginez, aurkitu besteak duen basoko biztanlea: goroldioa, onddoa, barea, okila...



Mandala Olaldeko parkean: hostoak eta adartxoak oso aproposak dira horretarako!




Hosto bat aukeratu, paperean margotu eta izena idatzi.

Aurkitu, aurkitu... sentsazioekin jolastuz: zerbait leuna, zerbait latza dena, zimurrak dituen, ziztaten duena, gorria dena...



Basoaren ezaugarrian behaketa eta errepassoa egin dugu: zuhaitza, zuhaixka, belarra, hosto mota, baso mistoa...



Muitteiko basoan zuhaitzak neurtu ditugu. Besarkatuz lodiera kalkulatu diogu. Altuera, lagun bat zuhaitzaren azpian jarriz eta zenbat aldiz errepikatzen den gehituz lortu dugu.





Bingo! Naturan agertzen diren bizidun batzuren izenak ikasten.



Bildutako hosto eta loreak paperean irudikatuz.



1. HIRUHILEKOA



Hosto lehorrekin egindako artelanak. 1. hiruhilekoan etxera aramateko lanen karpeta politak egin ditugu horiekin.

Udazkenean basora atera ginen eta hostoak bildu, lehortzen jartzeko.




Identifikatu ondoren, zuhaitzaren eta hostoaren marrazkiak egin ditugu. Gelan, parkeaz gozatzeko proposamenak egin ditugu.



Olalde parkeko hosto batzuk bildu eta beraien izena aurkitu.



Luparen laguntzaz, orbel tartean ornogabeak aurkitu eta behatu ditugu. baita sailkatu ere!



Olaldeko parkean taldeka aukeratutako zuhaitz baten azterketa burutu dugu: altuera, enborraren lodiera, hostoaren ezaugarriak...



Basoko zuhaitzen azterketa. Jasotako informazioa erabiliz, hostoak eta enborrak behatuz eta gakoa erabiliz, zuhaitzen izena identifikatu.



Bildutako hosto eta adarrekin zuhaitz ederrak osatu ditugu.



Egur hilak eskaintzen duen bizia aurkitu, behatu eta aztertu.

Gure konpromisoak

Ikasturte osoan zehar egindako lanketaren ondoren, basoaren alde hainbat konpromiso hartu ditugu.


LH 1	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Basoa eta bertako bizidunak zaindu eta errespetatuko ditugu. ▪ Ez bota zaborrik lurrera eta lurrean dagoena bildu.
LH 2	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zaborra ez boda eta botata dagoena jaso. ▪ Ez bota janaririk lurrera. ▪ Zuhaitzei minik ez eman ▪ Ez bildu lorerik ▪ Ez bota ezer errepara. ▪ Zaindu animaliak
LH 3-4	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez bota zaborrik eta ondo zaindu basoa. ▪ Zaindu animaliak eta babestu landareak. ▪ Zaindu zuhaitzak, ez hautsi adarrik, ez kendu hostorik...
LH 5-6	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Basoan zaborrik ez botatzeko kartelak jarri. ▪ Gelan erabiltzen dugun papera birziklatzea. ▪ Animaliak errespetuz tratatu eta bakean uztea. ▪ Lurrera zaborrik ez bota.

Proposamenak udalera

Aurten, 3. eta 4. mailakoek Udal ordezkariari hainbat proposamen zuzendu nahi dizkiegu. Hauek dira:

1. Zuhaitzean kolupio bat jarri.
2. Zaborrak botatzeko ontziak egotea.
3. Egiten ditugun eraikuntzak ez puskatzen saiatzea.
4. Menditik joateko bidea txukuntzea.





Hau izan da ikasturte honetan, eskolan egindako lanaren laburpena. Datorren ikasturtean, Eskolako Agenda 2030 barruan, helburu berarekin jarraituko dugu eta basoek gain, larreak, soroak eta landare itsutasuna ere aztertuko ditugu. Denon artean, herri jasangarri baten alde jokatu behar dugulako, inor atzean utzi gabe.



Eskerrik asko zuen arretagatik!